

LURPEKO UREN IKERKETA-ESKAERA BETETZEKO INFORMAZIO-ORRIA

HOJA INFORMATIVA PARA CUMPLIMENTAR LA SOLICITUD DE INVESTIGACIÓN DE AGUAS SUBTERRÁNEAS

1. HELBURUA

Dokumentu honen helburua da eskatzaileari jakinaraztea lurpeko uren ikerketak zer izapide dakarren, Jabari Publiko Hidraulikoaren parte diren lurpeko uren erabilera pribatiborako eskubidea eskuratu aurretik, eta zer datu edo dokumentu aurkeztu behar diren adieraztea.

2. NORK EGIN BEHAR DU ESKAERA

Zundaketa, putzua eta/edo galeria egin nahi duen edozein pertsonak edo erakundek lurpeko uren nahitaezko ikerketa eskatu beharko du [Lurpeko uren ikerketarako eskabidearen bitartez](#)

3. NON ETA NOLA ESKATZEN DA

Pertsona juridikoak:

Bide telematikoz egin behar dute eskaera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan ezarritakoaren arabera. Bai Eusko Jaurjaritzaren egoitza elektronikotik, bai: [URAKo web-orriaren izapideen bitartez](#). Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura erkidearen 39/2015 Legearen 16. Artikuluan ezarritakoaren arabera.

Pertsona fisikoak:

Lehen adierazitako bide elektronikoaz gain, pertsona juridikoek aurrez aurre egin dezakete eskaera URAREN bulegoren bategan.

EGOITZA NAGUSIA

Boulevard eraikina
Gamarrako Atea kalea, 1A, 11. solairua
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba).

MENDEBALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Urkixo Zumarkalea, 36, 7. solairua
48011 Bilbao (Bizkaia).

EKIALDEKO KANTAURIAR ARROEN BULEGOA

Intxaurrondo, 70, 1. solairua
20015 Donostia (Gipuzkoa).

1. OBJETIVO

El objetivo de este documento es informar a la persona peticionaria sobre la tramitación que conlleva la investigación de aguas subterráneas previo a la adquisición del derecho al uso privativo de las aguas subterráneas, que forman parte del Dominio Público Hidráulico, e indicar los datos o documentos que deben aportarse.

2. QUIÉN DEBE SOLICITAR LA AUTORIZACIÓN

Cualquier persona o entidad que pretenda realizar un sondeo, pozo y/o galería deberá solicitar la preceptiva investigación de aguas subterráneas mediante el [\(Formulario de investigación de aguas subterráneas\)](#).

3. CÓMO Y DÓNDE SE SOLICITAR

Personas jurídicas:

Deben realizar la solicitud por vía telemática, de acuerdo a lo establecido en el artículo 14 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas. Bien desde la sede electrónica del Gobierno Vasco o bien a través de los: [trámites en la web de URA](#). Tal como se establece en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Personas físicas:

Además, de la vía electrónica anteriormente indicada, para las personas jurídicas, pueden realizar la solicitud presencialmente en alguna de las oficinas de URA

SEDE PRINCIPAL

Edificio Boulevard
c/ Portal de Gamarra 1A - Planta 11
01013 Vitoria-Gasteiz (Araba).

OFICINA DE LAS CUENCAS CANTÁBRICAS OCCIDENTALES

Alameda Urquijo, 36 – 7ª planta
48011 Bilbao (Bizkaia).

OFICINA DE LAS CUENCAS CANTÁBRICAS ORIENTALES

Intxaurrondo, 70 - 1ª planta
20015 San Sebastián (Gipuzkoa).

4. NON ETA NOLA ESKATZEN DA

Urari buruzko Legearen testu bateginak (ULTB) eta Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamenduak (JPHE) jabari publiko hidraulikoa osatzen duten ondasunak definitzen dituzte.

- **Jabari publiko hidraulikoa (JPH)**, honako hauek osatzen dute:
 - Ur kontinentalak, lurrazalekoak eta lurrazpiko berriztagarriak, kontuan hartu gabe berritzeko denbora.
 - Korronte naturalen ibilguak, etengabeak edo jarraituak.
 - Laku eta aintziretako hondoak, eta ibilgu publikoetako lurrazaleko urtegien hondoak.
 - Akuiferoak, ur-baliabideen xedatze- edo eragin-egintzen ondorioetarako.
 - Itsasoko ura gezatzetik datozen urak.
- **Zaintza-eremua da** albotara ehun metroko zerrenda hartzen duen eremuetako bakoitza, ibilgua mugatzen duen lerrotik kontatuta, zeinean lurzorua erabilera eta bertan egin daitezkeen jarduerak baldintzatuta dauden.

JPHE-an ezartzen den bezala, lurpeko uren ikerketatzat hartzen da horien existentzia zehazteko egiten diren eragiketa guztiak, lurzoruan sakontzeko, erditzeko eta lortutako emarien edukiera neurtzeko lanak barne.

Era berean, TRLAren eta RDPHren arabera, jabari publiko hidraulikoaren erabilera pribatiborako eskubidea, kontsentsukoa izan ala ez, legezko xedapen bidez edo administrazio-emakida bidez eskuratzen da. Lurpeko uren ikerketa behar bezala ebatzi eta egiaztatu ondoren.

Arroko erakundeari dagokio jabari publiko hidraulikoari eragiten dioten baimenak eta emakidak ematea.

- **Legezko xedapenaren bidezko erabilera pribatiboa.** Lursail baten jabeak bertatik pasatzen den euri-ura eta haren mugen barruan pilatzen den ura aprobetxatu ditzake, Lege honetan ezarritako mugapenekin eta hirugarren pertsonen eskubideei eta eskubidea gaizki erabiltzearen debekuari buruzkoetan ezarritako mugapenekin.

Lursail baten barruan kokatutako iturburuetako ura erabili ahalko da, eta horren lurpeko ura aprobetxatu, urteko bolumen osoa ez bada 7.000 metro kubiko baino gehiagokoa.

4. CÓMO Y DÓNDE SE SOLICITAR

El Texto Refundido de la Ley de Aguas (TRLA) y el Reglamento del Dominio Público Hidráulico (RDPH), definen los bienes que integran el dominio público hidráulico.

- **Dominio Público Hidráulico (DPH)**, lo conforman:
 - Las aguas continentales, tanto las superficiales como las subterráneas renovables con independencia del tiempo de renovación.
 - Los cauces de corrientes naturales, continuas o discontinuas.
 - Los lechos de los lagos y lagunas y los de los embalses superficiales en cauces públicos.
 - Los acuíferos, a los efectos de los actos de disposición o de afección de los recursos hidráulicos.
 - Las aguas procedentes de la desalación de agua de mar.
- **Zona de policía** la constituida por una franja lateral de cien metros de anchura a cada lado, contados a partir de la línea que delimita el cauce, en las que se condiciona el uso del suelo y las actividades que en él se desarrollen.

Tal como establece el RDPH, se entiende por investigación de aguas subterráneas, al conjunto de operaciones destinadas a determinar su existencia, incluyendo las labores de profundización en el terreno, de alumbramiento y de aforo de los caudales obtenidos.

Asimismo, conforme al TRLA y RDPH, el derecho al uso privativo del dominio público hidráulico sea o no consuntivo, se adquiere por disposición legal o por concesión administrativa. Tras la correcta resolución y verificación de la investigación de aguas subterráneas.

El otorgamiento de autorizaciones y concesiones referentes al dominio público hidráulico es atribución del Organismo de cuenca.

- **Usos privativos por disposición legal.** El propietario de una finca puede aprovechar las aguas pluviales que discurran por ella y las estancadas, dentro de sus linderos, sin más limitaciones que las establecidas en la presente Ley y las que se deriven del respeto a los derechos de tercero y de la prohibición del abuso de derecho.

Se podrán utilizar dentro de una parcela aguas procedentes de manantiales situados en su interior y aprovechar en él aguas subterráneas, cuando el volumen total anual no sobrepase los 7.000 metros cúbicos.

- Akuiferoak gehiegi ustiatu direla edo gehiegi ustiatuak izateko arriskuan daudela adierazi bada, akuifero horietan ezingo dira egin atal honetan ildutakoak ez diren obrak, baimenik ez bada.

Ur hori sortzen, igarotzen edo pilatzen den lursailean bakarrik erabili ahalko da. (JPHEko 84. art. eta ULTBko 54. art.)

- **Administrazio-emakida.** Uren Legearen testu bategineko 54. artikuluan ageri ez den uren erabilera pribatibo orotarako administrazio-emakida beharko da.

5. NON ETA NOLA ESKATZEN DA

KASU GUZTIETAN AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIO OROKORRA:

- Eskabide-eredua behar bezala beteta.
- Eskabidea sinatzen duena eskatzailea ez bada, ordezkaritza egiaztatzen duen agiri bat aurkeztu beharko da:
 - Izapideak ordezkari baten bidez egiten dituzten pertsona fisikoen kasuan, notario-ahalarde baten bidez edo fede-emaile baten aurrean sinatutako ordezkaritza-akta baten bidez frogatu beharko du ordezkaritza ordezkariak.
 - Pertsona juridikoa bada, notario-ahalardea beharrezkoa izango da, bai eta ordezkari den pertsonak eskaera sinatzea eta erakundea eratzeko eskritura ere.
- Obraren aurrekontua.
- Putzua egin aurreko deskripzio-memoria:
 - Kokapen mapa edo plano ([Geoeuskadiren orrialdea](#)) edo krokis zehatza.
 - Proiektuaren oinarritzko datuak:
 - i. Jabearen edo pertsona fisiko edo juridiko sustatzailearen izena.
 - ii. Hartunearen kokapena, udalerrria, katastroko erreferentzia.
 - iii. Lurraren jabetza-titulua.
 - iv. Zulaketa egin duen enpresa eta eragiketaren zuzendari fakultatiboa.
 - Proiektuaren xedea.
- Behar hidrikoak: lurrazpiko ur-bilketak bete behar duen ur-eskariaren justifikazioa. Aprobetxamenduaren erabilerak eta ustiapen-arabidea, berehalako gehieneko emaria eta urteko bolumena adierazita

En los acuíferos que hayan sido declarados como sobreexplotados, o en riesgo de estarlo, no podrán realizarse nuevas obras de las amparadas por este apartado sin la correspondiente autorización.

- Estas aguas no podrán utilizarse en finca distinta de aquellas en las que nacen, discurren o están estancadas. (art. 84 del RDPH y art. 54 del TRLA).
- **Concesión administrativa.** Todo uso privativo de las aguas no incluido en el artículo 54 del texto refundido de la Ley de Aguas requiere concesión administrativa

5. DOCUMENTACIÓN QUE DEBE APORTARSE

DOCUMENTACIÓN GENERAL QUE SE DEBE APORTAR EN TODOS LOS CASOS:

- Modelo de solicitud debidamente cumplimentada.
- Si la persona firmante de la solicitud no es la persona interesada, se deberá presentar un documento que acredite la representación:
 - En el caso de persona física que tramita a través de representante deberá acreditar la representación a través de un poder notarial o a través de un acta de representación firmada ante fedatario público.
 - Si la persona es jurídica será necesario poder notarial y que la solicitud vaya firmada por la persona que ostente representación, así como la escritura de constitución de la entidad.
- Presupuesto de la obra.
- Memoria descriptiva previa a la ejecución del pozo:
 - Mapa o plano de situación ([Página Geoeuskadi](#)) o croquis detallado.
 - Datos básicos del proyecto:
 - i. Nombre del propietario o persona física o jurídica promotora.
 - ii. Ubicación del punto de captación, municipio, referencia catastral.
 - iii. Título de propiedad del terreno.
 - iv. Empresa ejecutora de la perforación y director facultativo de la operación.
 - Objeto del proyecto.
- Necesidades hídricas: justificación de la demanda hídrica que debe satisfacer la captación subterránea. Usos y finalidades del aprovechamiento y régimen de explotación indicando el caudal máximo instantáneo y volumen anual que se prevé utilizar.

- Karakterizazio geologikoa: ingurune geologiko lokala eta zeharkatuko den zutabe litologikoa, jarduketa-eremuaren deskribapena geomorfologiko eta hidrogeologiko orokorra, akuifero objektiboa eta gainjarritako akuiferorik dagoen ala ez adierazita.
- Karakterizazio hidrologiko eta hidrogeologikoa: lurpeko ur-masaren eta ustiatu beharreko formazioen deskribapen orokorra, eremuko hidrogeologiaren karakterizazioarekin eta analisiarekin batera. Horrekin batera, uren konposizio kimiko estimatua aztertu beharko da, bai eta ur-puntuaren inbentario bat ere (iturriak, iturburuak, ibaiak, beste putzu batzuk), eta inguruko kutsadura-fokuen inbentarioa ere, gutxienez 200 m-ko erradioan. Komeni da inbentarioa 500 metrora handitzea.
- Ponpaketa proba edo ur-neurketa proposatua.
- Jarduketaren ezaugarriak:
 - i. Zuhaitz mozteko do bideak prestatzeko beharra.
 - ii. Proposatutako zulaketa-sistema, zulaketa-diametroak eta zulaketaren zenbatetsitako sakonera.
 - iii. Putzurako aurreikusitako diseinua:
 - Aurreikusitako hodi mota.
 - Hodien diametroak.
 - Tarte grabilatuak eta zigilatuak.
 - Hodi artekatuko eta hodi itsuko zatiak.
 - Hodi piezometrikoaren instalazioa.
 - iv. Putzuari lotutako azpiegiturak
- Baimena ematen zaionean arroko erakundearen eskura dagoen fidantza edo abala eratu dela egiaztatzen duen agiria, horren ondoriozko betebeharrak betetzen direla bermatzeko. Fidantzaren edo abalaren zenbatekoa obren aurrekontuaren 100eko 4 izango da.
- Caracterización geológica: contexto geológico local y columna litológica que se prevé atravesar, descripción general geomorfológica e hidrogeológica de la zona de actuación, indicando el acuífero objetivo y la existencia o no de acuíferos superpuestos.
- Caracterización hidrológica e hidrogeológica: descripción general de la masa de agua subterránea y formaciones a explotar, junto con la caracterización y análisis de la hidrogeología de la zona. Junto con ello, se deberá analizar la composición química estimada de las aguas, así como un inventario de puntos de agua (fuentes, manantiales, ríos, otros pozos), y de focos de contaminación próximos en un radio mínimo de 200 m, siendo recomendable aumentarlo hasta los 500 m.
- Ensayo de bombeo o aforo propuesto.
- Características de ejecución:
 - i. Necesidad de corta de árboles o habilitación de caminos.
 - ii. Sistema de perforación propuesto, diámetros de perforación y profundidad estimada de la perforación.
 - iii. Diseño previsto para el pozo:
 - Tipo de tubería prevista.
 - Diámetros de las tuberías.
 - Tramos engravillados y sellados.
 - Tramos de tubería ranurada y tubería ciega.
 - Instalación de la tubería piezométrica.
 - iv. Infraestructuras asociadas al pozo.
- Documento acreditativo de haber constituido fianza o aval a disposición del Organismo de cuenca para el caso de que se le otorgue la autorización y con el fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones derivadas de la misma. El importe de la fianza o aval será equivalente al 4 por 100 del presupuesto de las obras.

Baimena emateko epea ez da inola ere bi urtetik gorakoa izango. Ikerketa-baimenaren epea amaitu eta bi hilabete igaro baino lehen, titularrak aroko erakundeari exekuzio ondoko memoria bat aurkeztu beharko dio, gutxienez honako informazio honekin:

- Putzuaren kokapen finala.
- Zutabe litologikoa: putzua egitean zeharkatutako materialen adierazpen grafikoa eta deskribapena, lodierak eta ezaugarriak neurtuta. Zulatzean egindako argazki-erreportaje batekin batera aurkeztu behar da.
- Informazio hidrogeologikoa:
 - i. Maila piezometrikoa.
 - ii. Emaria hartzen den akuiferoetatik.
- Putzuaren eraikuntza-krokisa, azken ezaugarriak adierazita:
 - i. Sakonera.
 - ii. Putzuaren diametroa.
 - iii. Instalaturako tutu-tarte artekatuak eta itsuak.
 - iv. Zundaketaren aurreiragazkiaren azken ezaugarriak.
 - v. Hormak zigitatzea.
 - vi. Erabilitako material motak.
- Putzuari lotutako azpiegituren deskribapena eta ezaugarriak.
- Egindako edukieraren edo ponpaketa-saiakuntzaren emaitzak: lurraren parametro hidraulikoen aurkezpena, putzuaren edukiera eta ponpaketa-saiakuntzetan lortutako akuiferoaren erreakzioak.

Ikerketa aldekoa bada, interesdunak gehienez ere 6 hilabeteko epean formalizatu beharko du emakidea eskaeraren edo erabilera pribatiboaren eskaera.

Ikerketa negatiboa bada edo ustiategia interesatzen ez bada, putzua zigitatu eta lurra lehengoratu beharko da, honako arau hauetan ezarritakoaren arabera: 665/2023 Errege Dekretua, uztailaren 18koa, apirilaren 11ko 849/1986 Errege Dekretuak onartutako Jabari Publiko Hidraulikoaren Erregelamendua aldatzen duena;

El plazo de autorización no excederá en ningún caso los dos años. Antes de transcurrir dos meses siguientes a la finalización del plazo de la autorización de investigación, el titular está obligado a presentar al organismo de cuenca una memoria post-ejecución con, como mínimo, la siguiente información:

- Ubicación final del pozo.
- Columna litológica: representación gráfica y descripción de los diversos materiales atravesados durante la ejecución del pozo, midiéndose sus espesores y características. Se debe acompañar de un reportaje fotográfico realizado durante la perforación.
- Información hidrogeológica:
 - I. Nivel piezométrico.
 - II. Acuífero o acuíferos desde el que se detrae caudal.
- Croquis constructivo del pozo, indicándose las características finales:
 - I. Profundidad.
 - II. Diámetro del pozo.
 - III. Tramos de tubería ranurada y ciega instalados.
 - IV. Características finales del prefiltro del sondeo.
 - V. Sellado de las paredes.
 - VI. Tipos de materiales utilizados.
- Descripción y características del conjunto de infraestructuras asociadas al pozo.
- Resultados del aforo o ensayo de bombeo ejecutado: presentación de los parámetros hidráulicos del terreno, capacidades del pozo y reacciones del acuífero obtenidos durante los ensayos de bombeo.

Si la investigación fuera favorable, el interesado deberá, en un plazo máximo de 6 meses formalizar la petición de solicitud de concesión o uso privativo

En el supuesto de que la investigación resultase negativa o no interesase la explotación, se deberá sellar el pozo y restituir el terreno conforme a lo establecido en el Anexo II del Real Decreto 665/2023, de 18 de julio, por el que se modifica el reglamento del

Uraren Administrazio Publikoaren Erregelamendua, uztailaren 29ko 927/1988 Errege Dekretuak onartua; eta 9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuak deklaratzeko irizpideak eta estandarrak ezartzen dituena.

6. IZAPIDEA

Eskaera eta adierazitako agiriak jasotakoan, honako izapideak egingo dira:

1. Datuak egiaztatzea, agiriak aztertzea eta beharrezkoa bada, agiriak eskatzea.
2. Arroko Plan Hidrologikoarekin bat datorren edo ez baloratzea.
3. PAOetan eta obrak egin eta erabili beharreko tokia dagoen udalerriko udalean jakinaraztea. Pertsona edo erakunde eskatzaileak ordaindu beharko du argitalpenaren tasa.
4. Beharrezkoak diren edo erakunde edo unitatearentzat interesekoak direla uste den txostenak eskatzea.
5. Alegazioak aurkezten badira, pertsona edo erakunde interesdunari jakinaraziko zaio, 15 eguneko epean eta haren interesen defentsan egoki deritzona adieraz dezan.
6. Txosten teknikoak.
7. Pertsona edo erakunde interesdunek esan beharrezkoa entzutea, alegazioak aurkeztu badira edo bildutako txostenetako bat negatiboa bada edo eskatutako emakidaren funtsezko ezaugarriak aldatzen baditu.
8. Lurpeko uren ikerketa zein baldintzatan eman daitekeen azalduko zaio eskatzaileari, hamabost egun balioduneko epean horiekin ados dagoen edo ez adierazteko eta egokiak iruditzen zaizkion oharrek egiteko.
9. Ebazpena.
10. Eskatzaileak Uraren Euskal Agentziari egin ondorengo memoriaren berri ematea.

Espedientea izapidetzen bukatutakoan, Uraren Euskal Agentziak ebazpena betetzen dela eta ur-jabari publikoa kontserbatzen dela ziurtatzeko zaintza-, ikuskapen eta egiaztatze-lanak egingo ditu.

Dominio Público Hidráulico, aprobado por Real Decreto 849/1986, de 11 de abril; el Reglamento de la Administración Pública del Agua, aprobado por Real Decreto 927/1988, de 29 de julio, y el Real Decreto 9/2005, de 14 de enero, por el que se establece la relación de actividades potencialmente contaminantes del suelo y los criterios y estándares para la declaración de suelos contaminados.

6. TRAMITACIÓN

Recibidas la solicitud y documentación requeridas, se realizan los siguientes trámites:

1. Comprobación de los datos, examen de la documentación y requerimiento documental si fuera necesario.
2. Valoración de la posible compatibilidad o incompatibilidad con el Plan Hidrológico de cuenca
3. Información Pública en el/los BOP y en el/los Ayuntamiento/s del lugar donde radican las obras y el uso. El abono de la tasa de publicación corre por cuenta de la persona o entidad peticionaria.
4. Petición de informes preceptivos o que se consideren de interés al organismo, unidad, institución o entidad.
5. En caso de que haya alegaciones se dará vista a la persona o entidad interesada, para que en el plazo de 15 días manifieste lo que crea oportuno en defensa de sus intereses
6. Informe técnico.
7. Audiencia a las personas o entidades interesadas en su caso, si ha habido alegaciones o si alguno de los informes recabados fuera negativo o modificara las características esenciales de la concesión solicitada
8. Se notificarán al peticionario las condiciones en que puede otorgarse la investigación de aguas subterráneas, para que en el plazo de quince días hábiles manifieste su conformidad con las mismas o formule las observaciones que estime pertinentes
9. Resolución.
10. Comunicación por parte del solicitante a la Agencia Vasca del Agua de la memoria post-ejecución.

Una vez terminada la tramitación del expediente, la Agencia Vasca del Agua realizará las labores de vigilancia, inspección y comprobación que estime oportunas para garantizar el cumplimiento de la resolución, así como la conservación del DPH.

7. EBAZPENAREN ONDORIOAK

Ebazpenak amaituko du abiarazitako administrazio-prozedura.

Lurpeko uren ikerketa titularra aurreikusitako ikerketa egiteko legitimatzen duen dokumentua da, beste organo edo administrazio batzuek eska dezaketzen edozein baimen alde batera utzita. Bertan, titularra identifikatzen da, zundaketaren ezaugarriak ezartzen dira, bete beharreko baldintzak ezartzen dira, eta exekuzioa hasteko eta amaitzeko gehieneko epea ezartzen da, baita haren balio-aldia ere. Baldintzak ez betetzeak zigorra eta/edo emakida iraungitzea dakar.

Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuari. HILABETEKO epea egongo da horretarako, ebazpen honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

8. EBAZPENAREN EPEAK

Uraren Euskal Agentziak hemezortzi hilabeteko epea izango du gehienez, ur-jabari publikoaren lurpeko urak ikertzeko prozedura ebazteko. Epe hori igarotakoan, eskaera gaitzetsi dela ulertuko da.

Uraren Euskal Agentziak berariazko ebazpenik ematen ez badu, ez du inondik inora ere esan nahiko lurpeko ur ikerketa lortu denik.

7. EFECTOS DE LA RESOLUCIÓN

La resolución pondrá fin al procedimiento administrativo iniciado.

La investigación de aguas subterráneas es el documento que legitima a su titular para realizar la investigación prevista, con independencia de cualquier autorización que pueda ser exigida por otros órganos u otras Administraciones. En él se identifica a su titular, se establecen las características del sondeo, las condiciones que deben cumplirse y se fija el plazo máximo para iniciar y finalizar la ejecución, así como el período de validez de esta. El incumplimiento del condicionado es causa de sanción y/o de caducidad de la concesión.

Contra la resolución, podrá interponerse recurso de alzada ante la consejera de Medio Ambiente y Política Territorial de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, en el plazo de UN MES, a contar desde el día siguiente a la notificación de la Resolución.

8. PLAZOS PARA RESOLVER

El plazo de la Agencia Vasca del Agua para resolver el procedimiento de investigación de aguas subterráneas del dominio público hidráulico no podrá exceder de dieciocho meses. Transcurrido dicho plazo podrá entenderse desestimada la petición.

En ningún caso podrá estimarse presuntamente, en ausencia de resolución expresa, la obtención de la investigación de aguas subterráneas.